



# 2022-2023

## Ikasturteko

## Hezkuntza Ez-Formaleko

## Programa



**begoñazpi** ikastola



## Hizkuntza-programa



# Ingelesa



## Helburuak

Jarduera honen helburua, ikasleek gaur eguneko, atsegin eta daben mailari egokitutako metodologiaren bidez, ikastea izango da. Beraz, Hezkuntza formalaren osagarri dan jarduera izango da. Ikuspegi metodologikoak, komunikazioan oinarrituz, adimen anitzak, pentsamendu errutinak eta talde-lana hartuko dauz aintzat. Azken baten, gure ikasleek Cambridge Language Assessmenten zenbait azterketa ofizialek ezarritako maila bera arrakasta osoz erdiestea izango dogu helburu.

Haur Hezkuntzan, Jolly phonics metodoa erabiliko da. Umeek, ingelesaren fonetika barneratzeko liburuxka izango dabe. Gelan liburua erabiltzeaz gain, beste dinamika batzuk be erabiliko dira. Dinamika honeen artean, jokoak, abestiak, ipuinak, flashcards-ak, marionetak... egongo dira. Metodo honen bidez, umeek letrak eta soinuak ikasiko dabez; xedea, ulermena hobetzeko, ingelesaren soinuak ikastea izango baita.

Lehen Hezkuntzan ikasleak, hizkuntzaren arlo guztiak garatuz, Cambridge Young Learners maila lortzeko prestatuko doguz. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, ordea, eskakizun maila handiagoa izango da. Maila bakoitzeko helburuak bilakaera taulan agertuko dira.

## Informazio erabilgarria

### TALDEAK

Taldeak 8-12 ikasleek osotuko dabez.

### Mailaketa-azterketak:

- DBH 1. mailako ikasleek mailaketa-froga egin beharko dabe. Azterketa hau lehen aldiz parte hartzen daben ikasleek be egin beharko dabe. Bigarren Hezkuntzan, taldeak mailaren arabera izango dira.
- DBHko ikasleen mailaketa-froga irailean izango da; data, ordua eta lekua aurrerago zehaztuko da.
- Batxilergoko ikasleen mailaketa-froga irailean izango da; data, ordua eta lekua aurrerago zehaztuko da.

### MATERIALA

- Haur Hezkuntzako ikasleek, Ikastolak eskatuko dauan Jolly Phonics testuliburua erosi behar izango dabe.
- Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleek Ikastolak eskatuko dauan testuliburua erosi behar izango dabe. Horrez gain, koaderno bat behar izango dabe.
- Maila guztietako ikasleek, Haur Hezkuntzakoek barne, liburua eta zorroa, arkatza, borragoma eta margoak ekarri behar izango dabez.



### HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte  
JOLLY PHONICS

### LEHEN HEZKUNTZA

1. – 2. maila	3. – 4. maila	5. – 6. Maila
STARTERS	MOVERS	KET
[pre A1]	[A1]	[A2]

### DBH

1. – 2. maila	3. – 4. Maila
PET [B1]	B1+ / FCE B2*
	CAE (C1)*

### BATXILERGOA

1. – 2. maila  
FCE (B2)\*  
CAE (C1)\*

\*Ikastaro honek etxean be lan egitea eskatuko dau.

# Euskera tailerra

## Helburuak

Jarduera honek euskera ikasgaia indartzea eta sakontzea dau helburu. Jarduera honetan ikasgelan lantzen diran hizkuntza konpetentziak landuko dira. Jarduera honetan, batez be, ahozko zein idatzizko ulermen eta adierazmena landuko da. Aurrekoaz gain, hizkuntza-formak be landuko dira.

## Taldeak

Taldeak 6-10 ikaslek osotuko dabez.

## Materiala

Koaderno eta estutxea.



LEHEN HEZKUNTZA

5. - 6. maila

EUSKERA TAILERRA

DBH

1. - 2. maila

EUSKERA TAILERRA

## Hizkuntza-programa



# Euskera



## Helburuak

Begoñazpi Ikastolan, urte bitik aurrera bizkaiera ikasi eta erabiltzeko aukera izanik, ikasleei C1 azterketa be bizkaieraz atarateko aukera emongo deutsegu. Horregaitik, ba, Labayru Fundazioaren eskutik, HABEko azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak eskainiko doguz. C1 titulu ofiziala lortu ahal izateko, HABE erakundeak ezarritako irizpide eta baldintzei jarraituz (ALFA III gaingiduta eta ALFA III-ko ikastaroan matrikulatzean 16 urte beteta izatea), ibilbidearen hasiera urte batez atzeratu behar izan dogu.

Honeexek dira eskainitako ikastarook: ALFA II, ALFA III, C1.

*Ikastolak, bagilean be eskainiko dauz ikastaro trinkoak.*

## Informazio erabilgarria

### INFORMAZIOA

- Taldea osatzeko, gitxienez, zortzi ikaslek egon beharko dabe.

- Mailaketa-azterketak:

- Lehen aldiz izena emoten daben ikasleek, ikastaroa hasi baino lehen, mailaketa-azterketa egin beharko dabe.
- DBHko ikasleen mailaketa-froga irailean izango da; data, ordua eta lekua aurrerago zehaztuko da.
- Batxilergoko ikasleen mailaketa-froga irailean izango da; data, ordua eta lekua aurrerago zehaztuko da.

- Ikastaroa gaingitzeko, ezinbestekoa izango da eskoletara joatea, eskoletan benetako aprobeitxamendua izatea eta azken azterketa gaingitzea.

### MATERIALA

Koadernoak eta estutxea.

### LIBURUAK\*

- Bizkaierako Aditza.
- Bizkaierako Deklinabidea.

Ikastaro guztietan GRAMATIKA, AHOZKO ZEIN IDATZIZKO ULERMEN ETA ADIERAZMENA landuko da.



#### DBH

4. maila  
ALFA II

#### BATXILERGOA

1. maila      2. maila  
ALFA III      ALFA III / C1

\*Liburuok ikastaroa hasi orduko erosiko dira.